

Edorta Jimenezen 'Voces de ballena' plazaratu du Txalaparta argitaletxeak


Mikel Iriartek itzuli du gaztelaniara idazle bizkaitarraren 'Baleen barbaroa' lana

Erredakzioa / Iruñea

Voces de ballena liburua aurkeztu zuen Edorta Jimenez idazle bizkaitarrak atzo, Iruñean, Txalaparta Nafarroako argitaletxearen eskutik. 1997an egileak plazaratu *Baleen barbaroa* lanaren itzulpena da, Mikel Iriartek eginak. Balea baten etorrerak eta haren ehiak hankaz gora jartzen duen Mundatxa herrian kokatu du Jimenezek istorioa, XVI. mendean.

EDORTA JIMENEZ idazle bizkaitarraren *Voces de ballena* eleberririk historikoa da egunotan Iruñeko Liburuaren Azokan eros daitekeen nobedadeetako bat. Duela bi urte plazaratu *Baleen barbaroa* lanaren itzulpena da, Mikel Iriartek eginak. Gaztelaniazko idazlana aurkeztuta Iruñera bildu zen atzo Edorta Jimenez bera, eta eleberria beste hiru lanekin osatuko duen bildumaren lehen alea dela azpimarratu zuen.

Gaztelaniara itzuli duten Jimenezen bigarren lana da *Voces de ballena*. Liburuak Sebastian de Zubilleta gaztearen istorioa jasotzen du. Mundatxa izeneko herrian dago kokatuta, XVI. mendean, eta balea baten etorrerak eta haren ehiak hango biztanleen eguneroko bizimoduari ematen dion astindua du ardatz. Hilketarik ez da falta Jimenezen liburuan,



JOXE LACALLE

Edorta Jimenez idazlea eta Garikoitz Berasaluze Txalapartako kidea, atzo, liburuaren aurkezpenan.

ezta Itsas Armada Garaiteziaren aipamenik ere.

Sebastian de Zubilleta protagonista mutil gaztea da, itsasoaren mundua aurreneko deskubrituko zuen pertsonaia osatzea baitzen hasieratik Edorta Jimenezen asmoa. «Pertsonaia gaztea nahi nuen, hark ikasten, ikusten eta deskubritzen dituen gauza berri guztiak irakurleak ere deskubritu zitzen», azaldu zuen idazle bizkaitarrak bere liburuaren aurkezpenan. «Emakumezko pertsonaia bat osatu nahi nuen, halaber, baina ezin izan nuen, garai hartan emakumezkoek ez zutelako parte

hartzen balearen ehizan», gaineratu zuen.

Eleberririk historikoa

Sebastian de Zubilletaren gorabeherak eta hilketa baten istorioa baino gehiago da, bestalde, *Voces de ballena* liburua, egileak atzo azaldu zuenez, baleen ehizari buruzko tesi etnografiko bat hartu baitu ardatz Jimenezek bere lana osatzeko. «Historia gogora ekartzen duten keinu ugari ditu liburuak, eleberririk historikoa delako, eta tesi etnografiko bat hartu duelako oinarritzat», azaldu zuen.

Hasieran, hala ere, bilobari kontatzeko idatzi ipuina izan zen *Baleen barbaroa*, Jimenezek hitzetan: «20 orrialde idatzi eta bazter utzi nuen istorioa, baleen ehizari buruzko tesia nire eskuetara ailegatu zen arte. Orduan, lanari ekin nion berriro, eta lau liburuk osatuko zuten bilduma egitea bururatu zitzaidan, XVI. mendeko euskaldunak nola bizi ziren agertzeko».

Hainbat narrazio liburu argitaratu ondoren, Edorta Jimenezen hirugarren eleberria da orain gaztelaniara itzuli duten *Baleen barbaroa*. Aurretik, *Speed gauak* eta *Azken fusila* kaleratu zituen.

Josep Palau Fabre idazleari eman diote Letra Katalanetako Ohorezko Saria

■ Atzo jaso zuen saria, Bartzelonan, Musika Katalanaren Jauregian

Agentziak / Bartzelona

OMNIUM CULTURAL elkarteko arduradunek atzo iluntzean eman zioten Josep Palau Fabre idazle katalanari Letra Katalanetako 31. Ohorezko Saria, Bartzelonan. Besteak beste, Josep Maria Ainaud historialaria, Jordi Dauder aktorea, Maria del Mar Bonet kantaria eta Jordi Maso piano jolea izan ziren ekitaldian, saridunarekin eta antolatzaileekin batera.

Josep Palau Fabre Bartzelonan jaio zen, 1917. urtean. 1943an argitaratu zuen lehen idazlana. *Poesia* aldizkaria sortu zuen, eta *Ariel* aldizkariaren sorreran ere parte hartu zuen, Espainiako Gerra Zibilaren osteko urteetan. Bere ibilbidean zehar hainbat genero jorratu ditu: narratiba, poesia, antzerkia eta saiakera.

PEN Club Catalan erakundeko presidente izendatu zuten 1976an, baina 1978an utzi egin zuen kargu hori. Picassoren inguruko munduko aditu handienetako bat da Josep Palau Fabre idazle katalana. Heldu den udazkenean argitaratuko du *De los ballets al drama* liburua, Picassoren bizitzari eta obrari buruz osatzen ari den lanaren hirugarren atala.